



**ZALDIBIAKO**  
**UDALA**  
zaldibia.eus

## **Gotzone Sagardui Osasun Sailburu agurgarria,**

Zaldibiako Udaletik zuzentzen natzaizu. Pasa den asteazkenean izandako bileran gure kezka eta ezinegona agertu genizun astebetean herrian izan genuen Covid-19 kasuen gorakada nabarmena dela eta.

la beste astebate pasa denean, egoerak okertzen jarraitzen du. Gaur argitaratuko den txostenaren arabera, gutxienez 7.600eko inzidentzia-tasa izango dugu 14 egunean, gutxienez 124 herritar bi asteetan positibo eman dutenak, herriko 52 etxebizitzatan dugu positibo den norbait, eta berrogeialdi prebentiboan egon diren beste hainbeste eta gehiago.

3 pertsona ospitaleratu behar izan dira gutxienez, Zainketa Berezien Unitatean egon da haietako bat, adin txikiko haurra, eta momentuz etxean baina sintoma kezkarriekin dagoenik ere bada oraindik.

Bileran aipatu zeniguten bezala, ez dago foko argirik eta Lardizabal Eskolaren bidez eta hezkuntzan jarrita dauden protokoloei jarraiki lortu da kasu asko azalratzea. Badakigu, ordea, kasu asko daudela eskola zein adin-txikikoekin inolako loturarik ez dutenak.

Egun hauetan Osakidetzako arakatzaille sareari eta herritarren kolaborazioari esker lan handia egin da, hori ukazina da eta datuak dira horren ispilu. Indarrean diren neurriei buruzko informazioa, herritarrei emandako ohartarazpenak eta irizpideak ere egunerokoak izan dira Udaletik.

Bi ildo horietan lanean jarraitu behar dela argia da, baina egoera oso kezkarria da eta Zaldibiako herriak Covid-19aren zabalpena eteteko ekintza-plan bat eta estrategia bat behar du.

Baheketa deialdi zabala ekintza horietako bat izan daiteke. Lehen egunetik (martxoaren 26a) Osasun Saileko Idazkaritzari eta jarraian (martxoaren 29an) Koldo Cambra Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako osasun-programen arduradunari azaldu izan diogu honen beharra. Bileran ere aipatu genuen Osasun Saitetik baheketa masiboak antolatzeko estrategia baztertu bazen ere, martxoan zehar Goierriko hiru herritan (Legorreta, Ataun eta Lazkao) berriro erabili dela tresna hau.



**ZALDIBIAKO**  
**UDALA**  
zaldibia.eus

Ez dakizkigu baheketa egiteko erabakia hartzeko irizpideak zein diren, baina nabarmen dakigu aipatutako hiru kasuetan baino egoera are larriagoa dela Zaldibiakoa. Arakatzailen bidezko lanak bere bertuteak eta bere mugak ditu, baheketa batek beste batzuk izan ditzakeen bezala.

Baina, zinez uste dugu herriko egoeraren tamaina eta herrian nabarmena den kezka ikusita, martxan jarri litezkeen bide eta tresna guztiak ipini behar direla mahai gainean. Eta berandu bagoaz ere, beranduegi izan aurretik hartu behar dira neurriak.

Zaldibiako egoerak erantzun bat behar du, orain artekoa baino sakonagoa, eta berehalakoa:

- Nola liteke Zaldibiako Udalaren informazio iturri ofizial bakarra euskadi.eus-en astelehenetik ostiralera 12:30etan plazaratzen den txostena izatea?
- Martxoak 31an burututako bileran, arakatzaille sareak jasotakoarekin egoeraren inguruko analisi bat aurkeztu zitzaigun hainbat udalei. Azterketa hori eguneratu eta konpartitu al dezakezue Zaldibiako Udalarekin?
- Jakinda Zaldibian kutsatzea dibertsifikatu dela eta ez dagoela jatorri bakar bat, zein neurri abiatu behar ditu Osasun Sailak kutsatutako pertsonak identifikatu eta transmisioa eteteko?
- Zein da Osasun Sailaren estrategia eta zein neurriak, Zaldibiako kutsatze katea lehenbailehen eteteko?

Pandemia osoan zehar eta iritsi zaigun olatu honen lehen egunetik adierazi izan dizuegun bezala, Zaldibiako Udalak bere prestutasun osoa adierazten dizue, bai ekintza-plan horren osaeran kolaboratzeko, bai berau aurrera eramateko baliabide-mota ezberdinak (pertsonalak, materialak, azpiegiturak, komunikaziokoak...) jartzeko ere.



Zaldibian, 2021eko apirilaren 6an.

*Eztitxu* ZALDIBIAKO  
UDALA

**Eztitxu Mujika Mariezkurrena**  
**Zaldibiako Alkatea**